

LOGOPEDIA

KOMUNIKAZIOAREN FISIOTERAPEUTAK

Logopedia "R" hizkia "ondo" esaten lagundu eta marrantak lausotzen dituen terapia gisa definitzea motz geratzea da. Komunikazio arazoaren aurreikuspena eta balorazioa lantzen ditu, besteren artean.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

Gero eta jende gehiago joaten da logopedarenera. Maider Eginok Sagasta logopedaren hitzetan, jendearen kontzientziazioa, gaixotasun edo arazoei izenak jartzea eta lanbidearekiko sentsibilizazioa dira arazoietako batzuk: "Jada ez dugu esaten 'nire alaba alferra da eta kito'. Orain izena jartzen diogu gertaerari eta konponbidea ematen saiatzen gara".

Logopediak bi arlo lantzen ditu batik bat. Hezkuntzako: ahoskera, hizkuntza atzerapena, letrak gaizki esatea, irakurketa, idazketa... Eta klinikoa: ahotsa, mingainaren kokapena, garuneko kalteak, iktusak, alzheimerra, enboliak... Egoera hauetan guztietan hizkuntza arazorik balego, logopedarekin landuko litzateke. Arazoak norberak edo beste inork detekta ditzakeela gaineratu du Eginok: "Neurologoek, pediatrek, dentistek, otorrinoek, irakasleek, orientatzaileek eta gurasoek ezinbesteko papera dute honetan. Gero eta gehiago hartzen da kontuan, zorionez".

Kontzientzia eta lanketa

Era berean, aitortza lortzeko borrokan dabilzala kontatu digu eta ezjakintasun-



naren aurreko lanketa egiten, arazoaren jatorriak "desegokiak" direnean ez baita asmatuko konponbidearekin. "Hortzetako aparatua hiru urtez eramateak ez du ezertarako balio, mingainaren kokazioa gaizki izan eta lantzen ez bada, gerora hortzak berriro mugituko lirartekeelako; arazoa ez litzateke konponduko", adierazi digu logopeda arrasatearrak. "Gaizki ahoskatzearen jatorria mukiak izan daitezke. Mukiek belarriak ixten dituzte eta entzumenaren kalitatea okertu. Entzuten duguna ahoskatzen dugunez, gaizki ahoskatzera eramango gaitu. Sudurra garbitzea oso garrantzitsua da". Horretarako, urpean igeri egitea gomendatzen du.

Beste ahoskera arazo batzuk estetikokoak soilik izan daitezkeela aitortu du eta norberak erabakitzen duela landu ala ez: "Hitz egitean letrak nahasten baditugu eta ahoskeran soilik eragiten badu, ez lantzea erabaki dezakegu, baina esan bezala idazten badugu, bigarren arazo bat sortuko zaigu: idazkerarena". Eginok azaldu digunez, pertsona batzuek 'R' hizkia zuzentzeko jotzen dute harengana, eta bada 'R'-a "gaizki" esaten ikasi nahi duenik ere".

Arrasaten sortua da Maider Eginok Sagasta. Logopedian diplomaturua, jaioterriko "Iratzarri" eta Gasteizko "Hitzak" logopedia zentroetan egiten du lan.

Lanketa etxean egin beharra

Arazoa erabat konpontzen da zenbaitetan, besteetan komunikatzeko gaitasunak garatu ahal dira, baina batzuetan guttiz gainditzea ezinezkoa izango dela aitortu digu Eginok, alzheimeraren kasuan, esaterako: "Luzera, hitz egiten ahaztuko zaiola badakigu, baina bidean landuko den zerbait da". Askotan, galdutzat ematen denean, garrantziarik ez zaiola ematen gaineratu du.

Hezkuntzaren arloan, bestalde, asko eta asko dira ikasturtea gainditzeko logopedarengana hurbiltzen direnak, gurasoek bideratuta. Eginok dioenez, ordea, arazoak ez dira konpontzen soilik astean logopedarekin pasatuko bi orduetan. "Norberak etxean landu beharrekoa da. 24 ordu ditu egunak, 24 ordu arnasak". ■